

ERABAKIA, 2023eko AZAROAren 16koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA PROIEKTUAK 2023 LAGUNTZA DEIALDIA, BEHIN BETIKO ERABAKITZEN DUENA

Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen, 2023eko martxoaren 22an, UPV/EHU Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea proiektuk 2023eko laguntza deialdia.

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, 2023eko irailaren 22an, Ikerketaren arloko errektoreordetzaren web atarian emandako eta ukatutako eskabideen behin behineko ebazpena argitaratu zen, eta 10 egun balioduneko epea eman zen kontratua bertan behera uzteko eta alegazioak aurkezteko.

Epe hau iraganik, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, aurkeztutako alegazioak aztertu ditu eta behin betiko ebazpenaren proposamena helarazi dio Ikerketaren arloko Errektoreordeari Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web atarian argitaratzeko.

Horregatik guztiagatik, honako hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

Bigarrena.- US23/11 kodedun eskaeraren gaineko erabakia atzeratzea, aurkeztutako alegazioak ebatzi arte.

Hirugarrena.- Agintzea erabaki hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratu dezaten.

Laugarrena.- Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere ez aldi berean erabilia:

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu behar da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2023eko azaroaren 16an

Inmaculada Arostegui Madariaga
Ikerketaren arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Investigación